



## EAJ-PNVren eta PSE-EEren arteko akordioa, 2024an euskal administrazioek garraio publikoaren hobariari eutsi diezaioten

EAJ-PNVk eta PSE-EEk adostu berri dute 2024an, eta euskal administrazio eskudunen kontura, garraio titulu pertsonalizatuen eta abonuen tarifetan %20ko hobaria aplikatzen jarraitzea. Horretarako, alderdi biek hitzeman duten konpromisoaren arabera, beren ordezkariek baiezkoa bozkatuko dute edo Euskadiko Autonomia Erkidegoaren administrazioetan autonomia-, foru- eta toki-eremuetan bideratuko dituzte bideratuko dituzte helburu hori lortzeko beharrezkoak diren finantza- eta aurrekontu-tresnak, bai eta abian jarri beharreko guztiak ere, garraio operadore bakoitzean hobariaren aplikazio praktikoa egokitzen begira.

Estatuko Gobernuak, 2024an ere, EAeko administrazio publiko guzietan garraio publikoko zerbitzuetako abonuen kostuaren %30eko deskontua egiteko laguntzari eusten badio, arestian esandako hobaria aurreko laguntza horren osagarri izango da, eta, kasu horretan, bidaiaien garraio publikoaren erabilera intentsiboa sustatuko duten titulu eta abonuen %50eko hobaria lortuko litzateke.

EAJ-PNVk eta PSE-EEk beharrezko jotzen dute neurri eraginkorrak hartzea Ukrainako gerrak, Ekialde Hurbilean piztu den krisiak, interes-tasen igoerak eta elikagaien garestitzeak familia-ekonomietarako ekarri dituzten ondorioak arintzeko. Ildo horretan, garraio publikoaren arloko konpromisoak gai estrategiko dira akordio hau sinatzen dugun alderdi biontzat.

Mugikortasun jasangarriaren eta bidaiaien garraio publikoaren alde lan egiten jarraitu nahi dugu, klima aldaketari aurre egiteko orduan garraio politikak duen garantzia eta irizpide sozialak aintzat hartuz eta garraio publikoaren sistema eficiente eta jasangarria izan dezagun. Garraio publikoari emandako laguntzek, gainera, bidaiaien kopurua igotzea ekarri dute, eta garraio publikoaren aldeko pedagogia egiten lagundu dute, ibilgailu pribatuaren aldean. Horregatik, lanean jarraituko dugu Euskadiko herritarrak garraio publikoaren erabilera horretan finkatzeko eta lurralte osoa egituratuko duen mugikortasun-sistema iraunkor eta eraginkor bat izan dezagun.



Irizpide horiek oinarri hartuta, garraio-abonuen prezioa murriztuko dugu 2024an, eta, aldi berean, elkarlanean arituko gara garraio publikoaren erabilera intentsiboa eta egoera pertsonal sozio-ekonomikoa eta premia bereziak dituzten kolektiboen egoera kontuan hartuko dituen tarifa-sistemarantz igarotzeko neurriak aztertu eta abian jartzeko.

**Bilbon, 2023ko urriaren 31n**

## **Acuerdo entre EAJ-PNV Y PSE-EE para el mantenimiento en 2024 de la bonificación del transporte público por parte de las Administraciones vascas**

EAJ-PNV y PSE-EE han acordado mantener el próximo año 2024, con cargo a las Administraciones vascas competentes, la bonificación del 20% en las tarifas de los títulos de transporte personalizados y los abonos. Para ello, ambas formaciones se han comprometido a que sus representantes votarán a favor o gestionarán en las distintas administraciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en los ámbitos autonómico, foral y local, los instrumentos financieros, presupuestarios y de implementación necesarios para adecuar la aplicación práctica de la bonificación en cada operador de transporte.

En el supuesto que el Gobierno del Estado mantenga en 2024 la ayuda para el descuento de un 30% del coste de los abonos en los servicios de transporte públicos para la totalidad de las Administraciones públicas de la CAE, la bonificación anterior servirá como complemento a dicha ayuda, de manera que se alcanzaría la bonificación total del 50% de los ya referidos títulos y abonos que fomenten el uso intensivo del transporte público de viajeros.

EAJ-PNV y PSE-EE consideran que es necesaria la adopción de medidas eficaces para paliar los efectos sobre las economías familiares de la guerra de Ucrania, la reciente crisis en Oriente Medio, la subida de los tipos de interés y el encarecimiento de los alimentos. Los compromisos en materia de transporte público resultan, en este sentido, un asunto estratégico para los dos partidos que firmamos este acuerdo.

Queremos seguir apostando por la movilidad sostenible y el transporte público de pasajeros, asumiendo la relevancia que la política de transporte tiene para hacer frente al cambio climático y atendiendo, además, a criterios sociales, de eficiencia y de sostenibilidad de nuestro sistema de transporte público. Las ayudas al transporte público han producido, además, un incremento de pasajeros y pasajeras y han ayudado a hacer pedagogía a favor del transporte colectivo público frente al



vehículo privado. Por ello, seguimos trabajando con el objetivo de fidelizar a la ciudadanía de Euskadi en el uso del transporte público y de disponer de un sistema de movilidad sostenible y eficiente que vertebré todo el territorio.

En base a esos criterios, mantendremos coyunturalmente durante 2024 una reducción del precio de los abonos de transporte y, a la par, trabajaremos conjuntamente para estudiar y poner en marcha un conjunto de medidas estructurales en el tránsito hacia un sistema tarifario que tenga en cuenta el uso intensivo del transporte público y la condición personal socio-económica y de colectivos con necesidades especiales.

Bilbao, 31 de octubre de 2023